CICLO de PAISAJE

PAISAIAREN ZIKLOA

LANDSCAPE CYCLE

2010 2011



Paisaia Aldaketa Globalaren aurrean

PAISAIAREN ELKARRIZKETAK 2011KO URTARRILA

HILAK 20, OSTEGUNA | 19:00

GRADU ARETOA

LETREN FAKULTATEKO
UPV/EHU
Paseo de la Universidad 5
Vitoria-Gasteiz

Convenio Europeo del Paisaje
www.mma.es/portal/secciones/desarrollo_territorial/paisaje_dt/convenio_paisaje/

Revista Naturopa
www.coe.int/naturopa

Manifiesto por una nueva cultura del territorio
nuevaculturadelterritorio.wordpress.com

Colegio de Geógrafos
www.geografos.org

AGE - Asociación de Geógrafos de España
www.cchs.csic.es

Margarita Ortega

Arkitekto Hirigilea eta Lurralde Antolamenduan Diplomaduna.

Azken urteotan, Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioko Landa Ingurunearen Garapen Iraunkorrerako Zuzendaritza Nagusiko batzordekide aholkularia izan da, lurralde- eta paisaia-arloko eta Autonomia Erkidegoekin gai horien inguruko harremanen arduraduna. Denboraldi horretan Europako Lurralde Agendaren lanketa eta jarraipenean eta ESPON programan esku hartu du, eta EBko Lurralde Garapen eta Hiri Gaien (TCUM) Azpibatzordeko kide izan da.

Funtzionario gisa egin duen ibilbidean zehar nazioarteko erakundeetako lan-talde ugaritan parte hartu du; Europar Batasunaren barruan, Espazioaren Garapenerako Batzordeko ordezkari izan zen, Europako Lurralde Estrategiaren lanketan eta Europako Hego-mendebaldeko, Mediterraneoaren Mendebaldeko eta Eremu Atlantikoko lankidetza-eremuetan lurralde-antolamenduan nazioz gaindiko lankidetzarako Interreg II ekimenaren programa eragileetan esku hartuz. Europako Kontseiluan CEMATeko (Lurralde-antolamenduaz arduratzen diren ministroen Europar Konferentzia) Goi-mailako Funtzionarioen Batzordeko kide izan da, europar kontinentearen lurralde-garapen iraunkorrerako Printzipio zuzentzaileen lanketan eta Landa-ondarea behatzeko gidaliburuan esku hartuz.

Halaber, Hirigintzako Sari Nazionalen Epaimahaiko kide eta *Ciudad y Territorio. Estudios Territoriales* eta Ambienta aldizkarien idazketa-batzordeko kide izan da.

Rafael Mata

Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Eskualdeko Geografia Azterketako katedraduna.

Paisaia eta lurraldearen antolamenduko gaietan espezialista izanik, lurralde-antolamenduari, paisaiari eta natura- eta landa-eremuen babes eta kudeaketari buruzko berrogeita zortzi liburu baino gehiago eta artikulu ugari plazaratu ditu.

Atlas de los Paisajes de España (Ingurumen Ministerioa, 2003) delakoaren zuzendarietako bat eta egilea da. Bere lanen artean honako hauek nabarmentzen dira: *Los paisajes de Madrid: Naturaleza y medio rural* (1999), 2000. urtean Madrilgo Erkidegoaren Hirigintza Saria jaso zuena, *Los paisajes españoles y su conservación* (2001), *Una visión histórica de la investigación sobre los espacios naturales protegidos en España: del interés por las bellezas naturales a las redes territoriales de espacios socioecológicos merecedores de protección* (2002), *Paisajes españoles. Cuestiones sobre su conocimiento, caracterización e identificación* (2002), *Paisajes rurales españoles: diversidad, valores y protección (2003), Agricultura, paisaje y gestión del territorio (2004) edo El paisaje, patrimonio y recurso para el desarrollo territorial sostenible. Conocimiento y acción pública* (2008). 1987. urtean, Espainiako Nekazaritza Ministerioaren Nekazaritzako Argitalpenen Sari Nazionala jaso zuen.

Lurralde-antolamenduko hainbat Planen lanketan esku hartu du Espainiako azpi-eskualdeko esparruan (Euskadi, Andaluzia, Extremadura, Kanariar Uharteak eta Balear Uharteak) eta Murtziako hainbat eskualdetako Paisaiaren Artezpideen zuzendari izan da.

Por una nueva cultura del territorio agiriaren sustatzaile eta sortzailea da, zeinak hirigintza-hazkundearen kontrolari buruzko ekarpen kritikoa eta lurraldearen kudeaketa eta antolamenduaren arloan ekarpen garrantzitsua erantsi baitzituen.

EKIN BERBETAN... PAISAIAREN EUROPAKO HITZARMENA ESPAINIAN EZARTZEKO ESTRATEGIAK

Paisaia hitzaren izaera anbiguo eta polisemikoak ahalbidetu du Espainian horrekiko hurbilpena, azken hamarkadetan zehar, sektoreen anitzen ikuspegitik garatzearen alde egin du. Baliteke ikuspegi guztien artean, natura- eta ingurumen-alorreko baliabide gisa eta ikuspegi akademiko eta profesionaletik, landuena eta gehien aplikatu dena izatea, eta bereziki lurralde izaerako lanei "laguntzeko" azterlan gisa.

Espainiako antolamendu juridikoak ere lege askotan izan du kontuan, eta batez ere, ingurumen-arlokoetan (natura, mendi, ur eta abarren babesa), eta baita, berrikiago, lurzoru, lurralde-antolamendu eta hirigintza arloko politiketan ere. (Zoido, 2010)

Europako Kontseiluak eskatuta, Paisaiaren Europar Hitzarmena (Florentzia, 2000ko urria) onartu ostean eta ondorengo berrespen ugarien (egunera arte, hogei herrialdek baino gehiagok sinatu eta berretsi dute PEH) ondoren, paisaiak arreta handiagoa erakarri du Europan, ezbairik gabe, politika autonomo legez.

PEHek garatzen diten paisaiaren kontzeptuaren eta politiken definizio zehatzak ez du lurralde-, gizarte- eta ingurumen-mailan duen garrantziaren zalantzarik uzten. Europa osoa hartzen duen Hitzarmen honek, beraz, gure kontinentean paisaiaren arloko baterako politika ezartzeko zientzia- eta politika-mailako adostasuna lortzearen aldeko ahalegin handia eskatzen du.

Espainia, hasiera batean sinatu zuten 16 herrialdetako bat izan zen eta esan daiteke eginkizun aktibo garrantzitsua bete zuela, zientzia- eta erakunde-mailan, haren definizioan eta aurreneko "hedapenetan".

Aurrekari hauek medio eta Estatuak hasiera batean emandako bultzaren ondoren, asko izan dira paisaiaren alorren eta espresuki PEHari lotutako "berariazko" politikak garatzeari ekin diotenak. Valentzia, Galizia eta Katalunian indarrean dauden legeak ez ezik, hainbat dira, gaur egun, prozesu legegileak abian dituzten Erkidegoak, ezagutzaren eta prestakuntzaren alorrean zabaldutako ekintza eta ekimen andana ahaztu gabe.

Elkarrizketa honetan gure herrialdean paisaiaren inguruan sona handiena dutenen arteko bi aditu ditugu gure artean. PEHeko postulatuen aplikazio-mailari buruzko balantzea egiten eta zalantzan dauden hainbat galderari erantzuten lagunduko digute:

- Zein da Espainian paisaiaren arloko politiken aplikazio-maila?
- Egungo krisialdia paisaiaren alorreko politiken oztopo izaten ari al da?
- Indarrean daraman hamar urte hauekin galdu al du Espainiak PEH inguruan hasiera batean izan zuen izaera bultzatzailea?
- Zeintzuk dira Espainia paisaiaren arloko politika batek gainditu behar dituen oztopo nagusiak? Eta erronka nagusiak?
- Egin ahal du paisaiaren arloko politika batek, benetan, lurralde-antolamenduko prozesu iraunkorragoak eta partizipatiboagoak garatzearen alde?
- Hasi al dira sartzen paisaiaren artezpideak lurralde- eta hirigintza-planeamenduan, PEHek aldarrikatzen duen legez?
- Zure ustez, asko falta al da oraindik paisaia sektorearen politika "sustatzaileetan" eraginkortasunez ezartzeko?
- Prest al daude hiritarrak HEPeko aginduak barneratzeko?

DOAKO IZEN-EMATEA paisaje@ehu.es | 945003350 ciclosdepaisaje.com

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE, PLANGINTZA, NEKAZARITZA, ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA
unesco etxea · centro unesco euskal herria · unesco centre bask country